



Kukukak antolatzen duen Antzerki eta Dantza Asteko kalejira oso koloretsua izan zen. Talde bakoitzak kolore bat aukeratu eta denek elkarrekin hainbat dantza eskaini zituzten Lasarte-Oriako kaleetan.

## Kukukako dantzari eta aktoreen kalejira koloretsua

Ekainaren 6tik 12ra Antzerki eta Dantza Asteko hainbat lan eskainiko dira kultur-etxean

**K**ukula Antzerki eta Dantza eskolak berriro Lasarte-Oriako kaleak kolore bizi eta musika alaiz bete zituen urtero antolatu ohi duen kalejiran. Antzerki eta Dantza Astearen parte hartzen ari diren dantzari eta aktoreek elkarrekin egin zuten desfilea musikak lagunduta eta ortzadar erraldoi batek zeharkatu

zituen Lasarte-Oriako kaleak larunbat arratsaldean.

500 inguru dantza eta antzerki zaleek Eskolaren abestia eta beste hainbat doinu dantzatu zituzten. Antzerkiak eta dantzak Lasarte-Oriaren duen zabalkundearen adibide dira kalean dantzatu zuten haur, gazte eta helduak.

Bestalde, aurreko aste gutxian bezala igandean ere bi saio eskaini ziren kultur etxean. Dantza garaikide emanaldi horiekin parentesi edo eten bat ireki du Antzerki Asteak: ekainaren 6tik 12ra jarraituko du egunero bi emanaldirekin, bat goizez ikasleentzat eta bestea arratsaldean nahi duten guzientzat. •




Igande arratsaldeko dantza garaikide saioa ikusteko toperaino bete zen Kultur Etxea.



Kadete mailako nesken Ostadar taldea izan da Gipuzkoako txapelduna /2

### ALBISTEA / 3

**Datorren larunbateko bigarren eskuko azokarekin hasiko da Aste Berdea**



Olabek anaiak egurrezko ontziak konpontzeko tailerra daukate Lasarte-Orian 4/5

**IES Hernani BHI**  
A. Iturriaga - K. Labaka

institutua@hernanibhi.com  
www.hernanibhi.com

**AURREMatrikula EPEA EKAINAREN 1tik 10era**

ESTATISTIKA  
EUSKO JAURLARITZA  
ER

### HEZIKETA ZIKLOAK

#### ERDI MAILA

- Mekanizazioa
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Telekomunikazio instalazioak **berria**

#### GOI MAILA

- Fabrikazio mekanikako diseinua
- Sistema Elektroteknikoak eta automatizatuak
- Gizarte eta kultur animazioa **berria**

#### SARBIDE PROBA

- Goi mailako heziketa zikloetan sartzeko proba prestatzeko ikastaroa

### HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK

- Mekanizazioko langilea **berria**
- Etxeko jardueretarako eta mendeko pertsonentzako oinarrizko zaintzetako laguntzailea

#### ESKAINITZA PARTZIALA

- Instalazio elektriko eta automatikoak: Hernani, Easo eta Usurbilen arteko plana



# Eskola Kirolaren Festa giro onean

■ Urte osoko kirol egitarauari eta entrenamenduei jai giroan eman zioten amaiera bikaina larunbatean Michelinen ■ Hainbat kiroletan, aritu ziren herriko neska mutilak

Lasarte-Oriako ikastetxean Eskola Kirolaren festa larunbat goizean burutu zen Michelingo kiroldegian, urte osoko entrenamendu eta jardunaldi programari jai giroan amaiera emanaz. Besteak beste, herri-kiroletan, atletismoan, saskibaloian, futbolean, errugbian eta teniseari aritzeko aukera izan zuten herriko neska mutilak.

Lasarte-Oriako ikastetxean Eskola Kirolaren Eguneko proba eta ospakizunetan herriko haurrek hartu zuten parte. Eskola Kirolaren helburua neska mutileri kirol ezberdinak ezagutaraztea da eta kirol ugari aritzeko aukera izan zuten herriko txikiek.

Eguraldiak lagunduta, egun osoan, hainbat partida eta proba burutu ziren. Herri kiroletan sokatiran eta gizon proban aritu ziren, eta baita futbolean, atletismoan, saskibaloian eta errugbian goizez, eta arratsaldean, tenisean.

## Ostiralean jarraipena

Eskola Kirolaren Eguna datoren ostiral arratsaldean izango du jarraipena infantil eta kadete mailakoek kuadrillategikoekin batera egingo duten jardunaldiarekin. Aurreko larunbatean aurre benjamin mailako txikienetatik, alebin mailakoetara ehun kirolaririk gora bildu ziren Michelingo kiroldegi inguruan IV. Eskola Kirolaren festan parte hartzeko.

## Egun osoko jaialdia

Goizeko 09:30etik eguerdiko 13:00ak arte eta arratsaldean, 16:00etatik aurrera Lasarte-Oriako 7 eta 12 urte bitarteko haurrek, hauen gurasoek eta

kirolak bat egin zuten Michelingo kirol gunean burutu zen Eskola Kirolaren jaialdian.

Txikienek, aurre-benjamin mailakoek, Lehen Hezkuntzako lehen bi mailakoek, ginkana erraldoia egin zuten pirata mozorrotuta.

Benjamin eta alebin mailatan, aldiz, launa talde osatu eta herri kiroletan, sokatiran eta gizon proban, futbolean, atletismoan, saskibaloian eta errugbian, kirol ugari aritzeko aukera izan zuten.

## Jolasa eta opari banaketa

Goizeko ekintzei amaiera aproposa emateko, parte hartzaile guztien artean opariak banatu ziren eta "Begiralearen Bila" jokoan parte hartzeko aukera izan zuten haurrek. Joko honetan abilenek opari bereziak jaso zituzten begiraleak aurkitu eta gero.

Arratsaldean jarraitu zuen festak, 16:00etatik aurrera benjaminen tenisean aritzeko aukera izan baitzuten.

Laugarren aldiz antolatu dute Ttakun eta herriko ikastolek Eskola Kirolaren festa hau eta aurten ere argi ikusi zen larunbatean Michelinen kirola eginez, gozatu, lagun berriak egin eta ederki pasatzen dutela haurrek. •



Hainbat kirol egiteko aukera izan zuten neska mutilak Eskola Kirolaren ospakizunean.

## NESKEN FUTBOLA Kadete mailako nesken Ostadar taldea Gipuzkoako txapeldun izan da

Añorga taldeari 2-1 irabazi eta Gipuzkoako Txapeldun berriak dira kadete mailako Ostadareko neska. Andoainen larunbatean goizeko 11etan jokatu zuten partidua ez zen erraza izan Aitor Hernando entrenatzaileak adierazi zigenez.

1-0 aurreratu ziren Añorga-koak lehen zatian, baina atsedendiko hausnarketaren ondoren norgehiagokari buelta ematea lortu zuten. Myriam Infante sartu zuen berdinketaren gola eta bigarrena Añorga-ko jokalaririk batek bere atean.

Beraien ligaxka irabazi zuten Ostadareko neskek eta bigarren fasean ere eurak nagusitu dira. Larunbatean elkarte afaria egin zuten eta oso pozik ospatu zuten lortutako garaipena. •

## FUTBOLA Texas taldeak galdu egin zuen kopako finala

Texas taldeak ezin izan zion lehen erregionalean kopako tituluarit eutsi, iaz txapeldun izan zen baina aurten bigarren postuarekin konformatu behar izan dute galdu egin bait zuten larunbat arratsaldean Zarautzen Mutrikuarrak taldearen aurkako final estuan.

Lehen zatian ondo hasi ziren, bi aldiz sartu zuten markagailuan aurreratzea eta 2-1 irabazten ziren atsedendian. Asier Alonsok sartu zituen bi golak eta bera izan zen jokalaririk erabakiorra, kontutan izanik bigarren zatiko bigarren minutuan kanporatu egin zuela epaileak Mutrikuako jokalaririk batekin izan zuten tirabira baten ondoren.

Hala ere 10ekin eutsi zioten ia bigarren zati osoan baina 9 minutu falta zirela 2-2koa egin zuten mutrikuarrek eta luzapenean bi gol segidan sartu zituzten lasarteiarrei. •

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



# Larunbateko bigarren eskuko azokarekin hasiko da Aste Berdea

**L**asarte-Oriako Udalak, ekainaren 4 eta 9a bitartean, Aste berdea 2011 antolatu du. Aste berezi honen helburu nagusia herritarrak kontzientziatzea da, ardurazko kontsumoa sustatuz hondakin gutxiago sortzea, hain zuzen ere.

Horretarako ekintza desberdinak antolatu dira aste horretan: bigarren eskuko azoka, hitzaldia eta sukaldaritza ikastaroak.

## Bigarren eskuko azoka

Gure etxeetan erabiltzen ez ditugun objektu ugari ditugu eta pilatzen joaten dira. Botatzeak pena ematen digu. Lasarte-Oriako Udalak objektu horiei guztiei bizi berri bat ematea proposatzen dizu.

Horretarako ekainaren 4an, Brigitarren plazan bigarren eskuko merkatua antolatu du goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00etara.

Proiektu hau behar ez ditugun objektu horiei bizia luzatu eta berrerabilpena bultzatzea helburuarekin sortu da.

Egoera onean dagoen edo zer gauza saldu, trukatu edo oparitzeko aukera egongo da bigarren eskuko merkatu honetan. Liburuak, jostailuak, mahai-jolasak, arropa, dekorazioa, bizikletak, kirol-tresneria, haurtxoentzat gauzak,



Aste Berdea 2011 bigarren eskuko objektuen azokarekin hasiko da, ekainaren 4an.

antigoalekoak... Erabiltzen ez dituzun objektu horiei bizitzeko aukera eman.

Ekimen honetan parte hartzea norbanakoa, elkartean, familian, lagun taldean, ikastetxe bezala... izan daiteke, animatu eta berrerabilpen esperientzia honen parte egin.

Antolakuntzak karpak eta mahaiak jarriko ditu jendeak ekartzen dituen gauzak non jartzeko tokia izan dezaten.

Parte hartzea irekia eta doakoa izango da, hala baina, aurretik izena eman beharko da salmenta-postua erreserbatu ahal izateko.

Interesa eta informazio gehiago nahi duenak 943 670249 telefono zenbakira deitu behar du. [merkatuak@artelatz.com](mailto:merkatuak@artelatz.com) postara mezua bidalitz ere informazio zabalagoa eskuratu ahal da eta izena emateko aukera ere badago.

## Gordailu-salmenta

Merkatuan posturik jarri nahi ez baduzu baina etxean dituzun hainbat objektuei irteera eman nahi badiezu gordailu-salmenta sistema erabili dezakezu.

Honen bidez, gehienez etxean dituzun 10 objektu

egunean bertan Brigitarren plazara eraman beharko dituzu goizeko 09:00ak eta 10:00ak bitartean eta antolakuntza-taldekoiei eman, hauek saltzeaz arduratuko dira.

Arropa izan ezik, egoera onean dagoen edozer eraman ahalgo da.

## Hitzaldia eta sukaldaritza

Honetaz gain, ekainaren 7an, Eusko Jaurlaritzako kontsumo zuzendaritzak Kontsumo arduratsua hondakin gutxiago sortzeko eta dirua aurrezteko hitzaldia eskainiko du Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan, 19:00etatik aurrera.

Era berean, ekainaren 8 eta 9an, 19:00etatik aurrera, sukaldaritza ikastaroa egongo da. Hauetan, Juan Luis Eizmendi Goiegi jatetxeko sukaldariak asteazkenean euskaraz eta Lurra XXI jatetxeko Jose Ramon Garzarainek osteguneko gaztelaraz janari hondakinekin egindako errezetak erakutsiko dituzte.

Sukaldaritza saio hauek Andatza plazan dagoen Uda-berri elkartean egingo dira eta horregatik, hauetan parte hartzeko lekua mugatua izango da. Beraz, interesa eta informazio gehiago nahi duenak 943 670249 telefono zenbakira deitu behar du. •

## BIYAK BAT ELKARTEA

### La Rhune-ra irteera

Biyak Bat elkarrekin txangoa antolatu du ekainaren 15ean, La Rhune-ra.

Aurretik Senperoko lakua bisitatuko dute. Bazkariaren ostean, Biarritzera egingo dute eta Lasarte-Oriara 20:45ean iristea aurreikusten da.

Irteerako izena ematea ekainaren 1an irekitzen da. Interesatuak 34 euro ordaindu behar dituzte, autobusa, La Rhune-ko tren eta bazkaria barne.

Ekainaren 8tik aurrera, elkarteko bazkide ez direnek egin ahalgo dute inskripzioa, beti ere, autobusa bete ez bada. Hauek 38 euro ordainduko dute. •

## URETAKO PARKEA

### Arcachonera joateko

#### 3. autobusa

Kuadrillategi eta Gazte klubeko gaztetxoek irteera egingo dute ekainaren 19an Arcachonera uretako parkera eta izena eman duten haur kopurua ikusirik, Ttakunek beste autobus bat jartzea erabaki du.

Erreserban zeuden gazteek haien lekua ziurtatzeko Ttakunera hurbildu behar dute eta 30 euroak ordaindu, baita oraindik izena eman ez dutenek ere, hirugarren autobus horretako lekuak bete arte. •

## Ostadar futbol taldea hirugarren geratu da erregional gorenean

**D**enboraldi nahiko onarekin eta gero, azkenean Erregional maila Gorenean jokatzeko duen Ostadarreko taldeak hirugarren amaitu du larunbatean Mutrikuko taldeari 5-1 irabazi eta gero.

Erraz nagusitu ziren Joxe Beldarrainen mutirik: Mutri-kun bina egin zuten 2-0 irabazten joan eta gero, eta larunbat arratsaldeko 17:00etatik aurrera Michelinen hirugarren postuaren lehia borobildu zuten lasarteoriarrentzat 5-1 irabazita.

Gipuzkoako Gorengo ligaxka honetan bi lehenengoak ohorezko mailara igoko dira eta hirugarrena, Ostadar alegia, beste emaitza batzuen zain dago. Igo egingo da mailaz hirugarren mailan diren Gipuzkoako talderen batzuek bigarren B mailara igotzen baldin badira, eta hori ez da gutxi gorabehera sanpedroak



Ostadarreko jokalariek pozik partiduaren amaieran Mutrikuri 5-1 irabazita gero.

arte jakingo.

Igo ala ez Joxe Beldarrain entrenadorea pozik dago emaitzeekin, kontuan izanik, duela bi urte igo zirela Gorengo Maila honetara eta normalena ez jaisteko borrokan ibiltzen bada ere, bi urteetan igotzeko postuetan ibili dira.

Talde oso gaztea osatu dute, herrikoa eta oso sendoa,

baina Beldarrainen ustez ez dute suertirik izan lesioekin, min hartuta ibili dira jokalar asko eta astero hamar bat lagun soilik elkartu da entrenamenduetan. Bere ustez zelaia gastatu xamar dago eta horren ondorio dira lesioak. Ilusioa galduta bukatu du denboraldia eta hurrengo urtean txikiak entrenatzea erabaki du. •

## ISU Leihoak ez du igoera lortu areto futbolean

**A**reto-Futboleko Gipuzkoako ligan denboraldi osoan lehenengo postuan egon eta gero, ISU Leihoak taldeak ez du hirugarren urtez helburua lortu, Euskal Ligarako igoera.

ISU Leihoak nagusitasun handiz lortu zuen Ligan lehenengo postua, 27 partida irabazi zituen eta 3 berdindu. Bigarren sailkatuari 18 puntu-ko errenta atera zizkion.

Hala baina, postu horrek ez zion igoera ziurtatzen. Izan ere, kanporaketa sistemaren bidez, sailkapeneko lau taldeek Euskal Ligara zein talde igoko zen erabaki behar zuten.

Gauzak honela, ISUrekin batera Zurt taberna, Tolargi eta Denak Gazte taberna taldeak sailkatu ziren igoera fase hori jokatzeko.

## Kanporaketa

Lehenengo ostiralean, ISU

Leihoak eta Zurt taberna taldeek buruz burukoa izan zuten kiroledegian.

Nahiz eta herriko taldeak garaipena lortzea izan buruan, partida amaieran bosnako berdinketa zegoen markagailuan.

Penaltiak bota behar izan zituzten eta zoritxarrez, Zurt tabernako mutirik 2 eta 4 gailendu ziren hauetan.

Gauzak honela, ISU Leihoak taldea lehiaketatik kanpo geratu zen.

## Maila mantendu

Bestalde, Aldaz H.K. taldeak beste urte bat egingo du Nazional B mailan.

Herriko taldeak sailkapeneko taula erdialdean leku hartu du aurtan, 8. postua eta ez du mailaz jaisteko arriskurik.

Beraz, helburua lortu dute Aldazeko mutirik. •





Mikel Iarza, Aitor Zarzuelo, Paulo Eizmendi eta Iker Elizegi Hilotz rock taldea

# Hilotz taldea saritu dute Donostian

■ Nazaret eskolako rock sariketa eskuratu du Lasarte-Oriako taldeak ■ Egun berean Gaueko Itzalak taldearen disko aurkezpenean jo zuten ■ Hilabeteotan hainbat kontzertu eskaini dituzte

**Hilotz taldeko kideak pozik dira Donostiako Egia auzoko Nazaret eskolako II. rock sariketan lehen saria eskuratu eta gero. 2009ko abenduan sortu, 2010ean jotzen hasi (lehenengo aldiz hain juxtu aipatutako eskolako lehen sariketan), eta 2011n taldea finkatu eta heavy metalaren ingurumarian euskaraz kantatzen jarraitzeko asmoa dute.**

JON ALTUNA

Hilotz rock taldea, 2009ko abenduan sortu zuten Mikel Iarza, baxu-jole eta abeslariak, Aitor Zarzuelo gitarrak eta Iker Elizegi batera-joleak, beste bi lagunekin batera eta handik urtebetera sartu zen taldean, Paulo Eizmendi gitarrak. Bera da, taldean azkena sartu bada ere, "beteranoena", 20 urte beteko baititu. Beste hirurek 18 urte dituzte eta ikasleak dira denak.

Behin taldea finkatuta, iazko abenduan, multimuskala jaialdian ekin zioten berriro jotzeari eta orain heldu da saria. Maiatzaren 6an Donostiako Nazaret eskolako rock txapelketako finalean nagusitu ziren.

## Gazteen arteko lehiaketa

Iaztik, rock lehiaketa antolatzen du Nazaret Eskolako hasiberrientzat, eta 15-22 urte arteko gazteentzako sariketa honetan, lehenengo aldian jada finalera iritsi ziren lasarteoriatarak. Aurten parte hartu duten 18 taldeen artean onenak izan dira Hilotz-ekoak epai mahaiaren iritziz eta musika tresnak erosteko 600 euroko saria irabazi dute.

Martxoan pasa zuten lehenengo kanporaketa eta maiatzaren 6ko finalean beste bost taldeekin lehiatu eta lehen postua eskuratu zuten. Kontzertua bizi bizia izan zen hainbat ikusleren aurrean eta ez zen hor amaitu Hilotz taldekoen egun luzea, hain juxtu ostirale horretan Flor de Caña tabernan jo baituzten gero Gaueko Itzalak taldearen disko berria aurkezteko kontzertuan.

Pozik eta gustura ari dira musika munduan, konforme daude urte eta erdian nahikoa marxa ona daramatelako, eta gainera bultzada txiki bat jaso dute saria irabazita.

Taldea sortu aurretik ingelesez kantatzeko asmoa zuten, horretan aritu ziren, *Saints of Hell* "infernuko sainduak" ize-

narekin. Garai hori ere garrantzitsua izan zen taldekideentzat: behin euskaraz kantatzen hastea erabaki zutenean aldatu zuten izena. "Ilbeltz" izenetik abiatu ziren eta denen artean "Hilotz" aukeratu zuten. Euskaldunak izanik musika ere euskaraz egingo zutela erabaki zuten eta aldeketa ekarri zuten euskararen alde egin zuten apustuak.

## Urte eta erdi jotzen

Taldearen ideia 2009 amaieran atera zen: Aitor, Mikel eta lehen hilabetetan taldeko beste gitarrak-jolea izan zen Adrian elkartzan ziren abesti batzuek prestatzeko asmoarekin; gero Iker batera jotzen hasi zenean gorpuztu zen ideia, beraz taldea 2009ko abenduan sortu zela esan daiteke. Orduan hasi ziren denak batera jotzen,... gerora pare bat hilabetean beraiekin ibili zuten abeslariak eta lehen gitarristak utzi eta 2010eko azaroan sartu zen taldean Paulo Eizmendi. Taldea jada finkatuta dagoela diote.

Lehen kontzertuak gogoan dituzte: Lehendabizikoa 2010eko udaberrian eman zuten, hain juxtu, Nazaret Lanbide Hezkuntza eta Batxilergo Eskolan, hau da, jendaurreko aurkezpena aurten lehen saria irabazi duten tokian bertan egin zuten.

Beraz oroitzapen goxoak dituzte lehiaketa honetaz. Lehen aldi hartan, 15 minutu tan jo zuten eta lehen kontzertu serioagoa Donostiako Leize Gorria tabernan eman zuten udara aldera.

Gero jada Paulo Eizmendi taldean denetik, lehenengoa, Abend tabernan eskaini zuten iazko Multimuskala egitarariaren barruan. Lasarte-Orian zenbait aldiz jo dute, Obelix-en, Parapetosonic-en, Udalarren 25. urteurrenoko kontzertuan Andatzan... baina ez dute jarraitzaileak aspertzeko beldurrik.

Duela bi larunbat Donostiako Guardetxean jo zuten, Euskal Metal Fest kontzertuan, Donostia aldeko bi tal-



Saria eskuratu eta gero, maiatzaren 6an lehengo "Zuloan" jo zuten "Gaueko Itzalak" taldearen disko aurkezpenean.



derekin, Alemaniako talde batekin eta Madrileko beste batekin.

## Musika ezagutarazten

Ekainaren 25ean Zaragozako Kanpinean joko dute eta gustura joko lukete berriro herrian, sanpedrotan txosnetan esaterako: "jotzen den guztia ondo dago" diote, taldearen oihartzuna eta musika zabaltzeko. Uztaila eta abuztua artean kanpora doa Paulo gitarrak-jolea eta pentsatzen ari dira, agian kontzertuak ateratzen badira, Adrian aurreko gitarristak joko

duela Pauloren ordez, hau kanpoan den bitartean.

9-10 abesti dauzkate proiektuan, eta udara bukatzen maketaren bat grabatzeko asmoa dute. Oraingoz, sei pieza prestatuak dituzte eta beraz kontzertuetan momentuz euren sei abesti horiek eta bizpahiru bertsio jotzen dituzte. Beste abestiak borobiltzen ari dira jende aurrean eskaintzeko. Orain dela gutxi arte, Parapetean egon dira baina ez zeuden gustura eta lagun batzuei esker Donostian daukate lokala.

*Lau hilabete generamatzen jo gabe eta Abend-en izugarritzko adrenalina geneukan, jendea eszenariotik oso hurbil zen gainera*

Musika heavy-a egiten dute eta honen barruan Trash egiten dutela esaten diete, baina taldekideek esan zigutenez, beste doinu eta estilo melodikoagoak edo gogorragoak ere sartzen dituzte: "Denetarik. Saiatzen gara gurea egiten".

Eman dituzten kontzertuen artean gogoangarriena, Mikel abeslariaren iritziz, Paulo taldean sartu eta Abend-en eman zutena da "aurretik lau hilabete jo gabe egon ondoren, jendea eszenariotik oso hurbil zen Abend-en eta izugarritzko adrenalina izan gurean, eta oso sentipen onak ere bai".

## Talde ikusgarria

Ikusgarria da taldea zuzenean jotzen ikustea, oholztan dena ematen duen taldea da, eszenaratze indartsua dute. "Zu ez bazara mugitzen jendea ere ez da mugituko. Gustatzen zaigu, eta eskertzen dugu, guk jotzen dugunean, ikusleak giroan eta kontzertuan murgiltzea. Ematen diguten dirua baino nahiago dugu jendeak ondo pasatzen badu, batez ere kontzertura joan den jende berria bada".

Zaletu koadrila badute atzean, beti joaten diren ikastolako lagunak batetik eta taldea zein bere musika ezagutu eta kontzertuetara joaten direnak bestetik.

Kontzertuetan eskaintzen dituzten 6-8 kantetarik gehienetan heriotza ageri da "gai oso ezberdinetan, gerla, gaixotasunak,... baina herio hor dago beti". •

## Egunero

### Erakusketa

PALESTINA ETA GOLANeko giza eskubideei buruzko argazki erakusketa Mundu Bat Gobernu Kanpoko Erakundearen eskutik. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan.

## Astelehena, 6

### Antzerkia

GOAZEN JOLASTERA, MIMO BAT NAIZ eta BURUGORRI INSTITUTUAN lanak taularatuko dituzte HH eta LHkoek IX. Antzerki eta Dantza Astearen barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan. EUSKARAZ.

## Astearte, 7

### Antzerkia

HOLLYWOODKO IZARRAK eta ESKALE MUSIKARIAK lanak taularatuko dituzte LHko 4. mailako gaztetxoek IX. Antzerki eta Dantza Astearen barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan, EUSKARAZ.

## Asteazkena, 8

### Antzerkia

BIZKO-BIZKO, TXOOO!, TXANPON BILA NEW YORKEN eta ERASOAK AKABO lanak eskainiko dituzte LHko 6. mailako gaztetxoek IX. Antzerki eta Dantza Astearen barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan. EUSKARAZ.



## Nerabeak hobeto ezagutzeko asmoz hitzaldia kuturretxean

Lasarte-Oriako udaleko Sanitateko departamentuak antolatuta, Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloaren barruan, "NERABEAREN AURPEGIAK" eskainiko du Meskal Ros psikologoak.

OSTEGUNEAN, HILAREN 2AN  
KULTURETXEAN 18:00ETAN

## Osteguna, 9

### Antzerkia

KLOWN ABENTURAK lana taularatuko dute LHko 5. mailako gaztetxoek IX. Antzerki eta Dantza Astearen barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan. EUSKARAZ.

## Ostirala, 10

### Antzerkia

LarrialdiaIAIAIAk lana taularatuko dute helduek IX. Antzerki eta Dantza Astearen barruan. Kulturetxean, 22:30ean, EUSKARAZ.

## Larunbata, 11

### Antzerkia

BIZITZAREN ZIRKOA lana taularatuko dute gazteek eta Añorgako taldeak CROMTECH lana eskainiko du IX. Antzerki eta Dantza Astearen barruan. Kulturetxean, 20:00etan, EUSKARAZ.

### Antzerkia

ANDREAREN URTEA lana taularatuko dute helduek eta Jalguneko taldeak 20 urte hamaika bertute eskainiko du IX. Antzerki eta Dantza Astearen barruan. Kulturetxean, 22:30ean, EUSKARAZ.

## Zabaletako Jaiak

### Astearte, 31 eta Asteazkena, 1

18:00: Haurren jolasak eta ondoren japoniar bonbak.

### Osteguna, 2

18:00: Haurren antzerkia, oparien zozketa eta japoniar bonbak.

### Ostirala, 3

18:00: haurren antzerkia eta ondoren merienda.

19:00: Porrotx pailazoarekin txupinazoa.

20:00: Teresa sorginaren jaitziera auzoko trikitilariekin.

22:00: dantza garaikidearen emanaldi handia.

23:00: Xumela abesbatzaren emanaldia eta ondoren Itzartu eta Ahuen taldeen kontzertua.

### Larunbata, 4

09:00: diana.

11:30: Joxe Migel Aranzadiren oroimenezko IV. Eskoba txapelketa.

15:30: J. Migel Aranzadiren oroimenezko IV. Mus txapelketa.

16:00-19:00: Irien lagunen puzgarri festa.

17:00: Toka txapelketa.

19:00: Hipo eta Tomax.

23:00: bertso saioa: Ane Labaka, Uxue Alberdi, Andoni Otamendi, Julio Soto eta gai jartzen Unai Muñoa.

00:00: Gaueko Itzalak, Eratu eta talde sorpresa.

### Igandea, 5 *Denok baserritarrez jantzita*

09:00: diana eta auzo garbiketako txapelketa.

11:00: Landaberri ikastolako dantza saioa.

12:45: proba mistoa: Tellerigaina-Auzoko gazteak eta Larrekoetxe/Ostadar-Erkide eta ondoren Idi proba.

14:30: herri bazkaria eta ondoren eromeria.

18:00: herri kirolak haurrentzat.

20:30: Teresa Sorginari agurra eta azken traka.

## Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00  
eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Esazu irratiko programazioa

### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzte ostiralero 9:45etik 11:00etara



## Oharrak

### Odol ateratzak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzak egin go dituzte Osasun Zentroan datorren astelehenean, hilaren 30ean, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

### Mahai jokoetan izena emateko epea irekia

Biyak-Bat erretiratuen elkarteak jakinarazi nahi du San Pedroko jaien barruan ospatzen diren mahai joko eta mugimenduzko jokoak ekainaren 8tik aurrera hasiko direla jokatzen.

Hauetan parte hartu nahi duenak, maiatzaren 25etik aurrera egoitzako bulegotik pasa beharko du izena emateko. Inskripzio epea ekainaren 3an itxiko da.

### Paella txapelketa

Ekainaren 4an paella txapelketa egingo dute Gazte Klubeko gaztetxoek. Eguerdiko 12etan hasiko da eta Amaraun ludotekan bertan izango da.

Izena emateko azken eguna ekainaren 2a da (2a barne). Horretarako telefonoz deitu dezakezue 943 371448 zenbakira edo pasa Ttakin Kultur Elkarteke bulegotik (Geltoki kalea 4). Animatu zaitzete!

### Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota: urrezko aliantza Jose Luis grabazioarekin, lau bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera bat, eraztun bat, diru zorro bat, neskaren eskumuturreko bat, bi zilarrezko pultsera, bi

betaurreko graduatu (bata zorroarekin eta guzti), bi telefono mugikorak (bata poltsarekin), haur zamarra bat, larruzko beste zamarra bat eta belarritako batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### Trafikoa kudeatzeko zentrorra txangoa

Biyak Bat erretiratuen elkarteak ohar honen bidez jakin arazi nahi du, ekainaren 16an Otxarkoagan dagoen Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentrorra antolatuta den txangorako

lekua badagoela.

Autobusa goizeko 9:00etan aterako da elkartearen egoitzatik. Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentro modernoan bisitatu eta Oinezkoen praktika egokiak proiektzioa ikusteko aukera izango da. Lasarte-Oriara 14:00ak aldera iritsiko dira.

Bisita doanekoa da, bazkide ez direnentzat ere. Txangoan izena emateko interesa dutenek, bulegora hurbiltzea besterik ez dute 10:30etik 12:30era.

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info



# Sorgin Dantza, San Pedro egunean

Ekainaren 7tik aurrera astearte eta ostegunetan egingo dira dantza prestatzeko entseguak

**S**an Pedro jaiak hasteko hilabete besterik gertzen ez denez, herriko elkarte eta talde guztiak jaietako ekintzen antolakuntzan lanean dihardute eta datorren astean hasiko dira Sorgin Dantza prestatzeko elkartzen.

Oriako auzotarrek mantendu duten dantza berezi honek berrikuntza bat dakar aurten, jaietako egun nagusian, San Pedro egunean bertan eskainiko dela.

Beraz, bi zortzikoteak eta atzetik doazen herritarrek ia bezala Oriako auzotik kalejiran aterako dira, baina ibilbidea oraindik zehaztu gabe dago, herriaren erdiguneko lanak direla eta.

## Entseguak

San Pedro egunean Oriatik dantzan atera nahi dutenak ekainaren 7tik aurrera daukaten dantza ikasteko eta prestatzeko aukera. Hitzorduak, Landaberri BHIko patioan

izango dira astearte eta ostegunetan 20:00etan hasita.

Antolatzaileek adierazi duten komenigarria dela desfilean parte hartu nahi dutenak entseguetara joatea. Sorgin Dantza antolatzeaz arduratzen direnen iritziz, ondo dantzatzen dutenak ere joan beharko lukete prestatzeko saioetara hasiberriekin batera.

## Gaztetxoaren zortzikotea

Aipagarria da era berean, aurten ere haurren zortzikotea aterako dela dantzan. Hau 1999, 2000 eta 2001. urtean jaiotako gaztetxoek osatuko dute.

Taldea osatzeko, Udalak adin horretako herriko gaztetxo guztiei ohar bat bidaliko die eta haurren zortzikotean parte hartu nahi dutenak kulturetxeko Gazte informazio bulegoan, hirugarren solairuan eman beharko dute izena. •



Aurten Sorgin dantzako doinu eta dantzek San Pedro egunean alaitu eta beteko dituzte Lasarte-Oriako kaleak.

# Bideo Lagunak

*Betiko zerbitzua  
gure  
aholkularitza  
onenarekin*



**Inguruko erakusketarik onena!**

**BEGIRATU  
GURE ESKAINTZAK!**

**Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com**